

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAN EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO NEURRIAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko azaroaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizarteko gune guztietara zabaldua eta, denborari dagokionez, mugatua. Aurten ariketa hau azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da eta, norbanako bezala (ahobizi edo belarriprest izanez) parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu *arigune*-en bidez.

Donostiako Udalak atxikimendua eman dio ekimenari eta zinegotzian zein udal langileen parte-hartzea eskatu du. Izan ere, Udalaren betebeharrak eta konpromisoa da herritarrakiko harremanak eta zerbitzu publikoen eskaintza euskaraz bermatzea.

Hain zuzen ere, aste honetan jakin dugu herritarrekin eta familiekin harreman zuzena duen zerbitzu batean, etxez etxeko laguntza zerbitzuan, zailtasunak daudela atentzioa euskaraz eskaintzeko Zerbitzua kudeatzen duen enpresak egindako azterketa baten bidez jakin dugu soilik langileen % 18ak ulertzen eta hitz egiten duela euskaraz eta horietatik % 3ak duela titulazioa.

Irailaren 15ean izandako bilera batean, enpresak langileei 2020-2021erako formakuntza planteamendua egin zien. Derrigorrezko formakuntza ordaindun prebentzio arloko ikastaroak eta osasun alarma egoerarekin zerikusia dutenak sartzen zaizkie, baina euskarakoak lan orduz kanpo gelditzen dira. Enpresak eta Udalak 40 orduko euskara ikastaroa eskaini diete auxiliarrei, urtarriletik apirilera arte, haien euskara maila hobetzeko.

Auxiliarren eta zerbitzuko erabiltzaileen testigantzak entzunda, badakigu batzuetan ezin dela euskarazko atentzioa bermatu, dakiten auxiliarrak okupatuta egoten direlako eta plantilaren % 63ak ez duelako euskaraz hitz egiten eta ulertzen.

Etxez etxeko laguntzako zerbitzua arautzen duten baldintzen arabera, langileek B2ko ahozko maila izan behar dute. Langileen homologazio hori Antiguako AEKren bidez dauka hitzartuta enpresak, baina langileek diote ez dutela homologazioa egiteko erraztasunik lanordutik kanpo egin behar dutelako eta, soilik, 40 orduko online formakuntza eskaintzen delako (eta horretarako beharrezkoa da ezagutza minimo bat izatea ordenagailuaren erabilpenean).

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Azaroaren 16ko batzordeetan, Gizarte Ekintzako delegatuak interpelazioari erantzunez esan zuen ez duela erabiltzaileen kexen berri eta Udalak ezin duela formakuntza lanorduetan eskaini, hori langileek enpresarekin negoziatu beharreko kontua baita. Gainera, aipatu zuen bakarrik 15 familia direla gaur egun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaera egin dutenak.

Kontuan izanda zerbitzua Udalaren eskumena dela, ez dugu konpartitzen ezin duela ezer egin.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalegina egin dezala enpresarekin adosteko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileak euskaraz gaitzeko trebakuntza haren formazio planaren barruan izatea, horretarako klase presentzialak eskainiz eta haiek lanorduen barruan egiteko aukera emanaz.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari proaktiboki susta dezala zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko aukera Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen artean.

Donostian, 2020ko azaroaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia